

MENDIZORROTZATIK ■ Jon Rejado

Fitxaketarik bai?

Abendua geroz eta gertuago dago, baita neguko merkatua ere. Talde gehienetan bezala, Alavesek indartzeko beharra duela uste dute askok, batez ere atzeko lerroan duen sendotasun falta konpontzeko. Aipatu arazoa are larriagoa da Gasteizko taldeak sailkapenean betetzen duen postua ikusita. Dena den, Alavesek ezin du talde gehienek egiten duten akatsa egin: urduritasunak

behartutako zentzurik gabeko fitxaketak.

Alaveseko defentsan dauden arazoak talde osoaren ardura izan arren, argi dago jokalaririk batzuk ez daudela sasoi betean, Tellez eta Llorens, batez ere. Denboraldi hasierako jardunaldietan Gelirekin gauza bera gertatu zen, eta hainbat partida aulkian ikusi ostean, maila bikaina erakutsi du zelaian.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS
Carlos Llorens Alaveseko atzelaria.

Tellez ordezkatzeari ez da zaila, Manek Abelardo, Eggen edo Ochoa zelaia baitaitezake, bide batez konfiantza apur bat emateko azken bi jokalariei. Llorensen kasua ezberdina da, Ibon Begonia zelaia erditik jaistea edo Geli ezkerrean eramatea baino ezin baitu egin Manek. Dena den, argi dago aulkian egoteak ez diola inori kalte egiten.

Aurrelari berriz ezer gutxi esan daiteke, eta zelaia erdian jokalariek soberan daude, eta ez dute maila txarra erakutsi orain arte. Fitxaketarik egin behar al du Alavesek? Gonzalo Antonen esku.

GAIZKA GARITANO EIBARREKO KAPITAINA

«Etxetik kanpo emaitza on bat lortuta, gauzak errazagoak izango dira»

Jon Ordoñez | DONOSTIA

Gaizka Garitano Eibarreko kapitaina Blas Ziarretaren jokalaririk erregularrenetako bat izaten ari da denboraldi hasiera honetan. Orain arte jokatu dituen hamaika partidak jokatu ditu erdilarik bilbotarrak, eta taldeak etxean eman duen itxura onaren eta kanpoan eskaini duen itxura txarraren lekuko da.

■ **Hurrengo bi partidak kanpoan dituzue, Almería eta Las Palmasen aurka. Aukera ona da kanpoko lehen partida irabazteko.**

Bai. Partida onak jokatu ditugu kanpoan —nahiz eta galdu—, eta beste partida batzuk ez hain onak, baina kanpoan puntuak batzen hasi beharra daukagu, bestela jaitsiera postuak oso hurbil geratzen dira.

■ **Eta aipatu dituzun partida on horietatik zein jarriko zenuke eredu bezala?**

Etxetik kanpo. Levanteren kontra oso partida txukuna jokatu genuen, galdu, eta zorte handirik ez izan arren. Tenerifen ere memento onak izan genituen. Baina egia esan etxean askoz hobeto aritu gara.

■ **Ipuruan ez duzue galdu. Zeintzuk dira etxetik kanpora jasaten duzuen aldaketa horren giltzak?**

Ez dakit, egia esan hori da gure arazorik larriena, eta beti horren inguruan hitz egiten dugu: zergatik egoten garen etxean horren ondo eta sendo, eta zergatik ditugun hainbeste arazo etxetik kanpo. Ez dakigu zergatik gertatzen zaigun, agian, mentalitate edo zorte falta bat



JON URBE / ARGAZKI PRESS

KRITIKAK

«Harritu egin ninduen Orduondok esandakoak. Berak hori esateak ez du zentzurik»

da. Konfiantza pixka bat ere falta dugu. Emaitza on bat behar dugu konfiantza hartzeko, eta behin emaitza hori iristen denean, gero gauzak errazagoak izango dira.

■ **Eta Ziarreta entrenatzaileak zer esaten dizue?**

Etxetik kanpo punturik lortzen ez badugu maila honetan mantentzea oso zaila dela. Horre-

gatik larunbat honetan kanpoan dugun partida da guretzako garrantzitsua.

■ **Gol freskotasuna da nabari**

zaizuen gabezia handiena.

Bai, azkeneko metroak menderatzen ditugu, baina nahiz eta beti hor egon, azken erdiraketa eta azken errematea falta zaizkigu. Baina hori logikoa da. Eibarrek beti izan duen arazoa da, kalitate falta.

■ **Zu izan zara jokalaririk erregularrenetako bat.**

Orain arte minutu guztiak jokatu ditut Ligan eta Espainiako Kopan. Entrenatzaileak konfiantza eman dit, eta ahalik eta ongien egiten saiatzen gara.

■ **Eta zer moduz daramazu kapitain izatearena?**

Ondo. Pozik nago, erantzukizun berezi bat da.

■ **Josu Ortuondok hitz gogorak izan zituen Eibarrekin, eta pentsatzekoa da zuentzako ere ez zirela hitz gozokak izango.**

Ni harrituta geratu nintzen. Hemengo entrenatzaile bat izanda, gure filosofia ezagututa eta urtero maila honetan taldea egiteko ditugun arazoen berri izanda harrituta geratu nintzen. Nahikoa egiten dugu aurrekontu txikiarekin urtero mailari eutsiz. Horrelako gizon batek hori esateak ez du inolako zentzurik.

■ **Jende guztiak esaten du Eibar Bigarren A Mailako talde apalena dela eta ez dela jokatzera zelairatzen, baina gero Zaragoza bezalako talde batek igandean jokatu zuen bezala jokatzeko du Ipuruan.**

Nik denbora dezente daramat hemen, eta badakit zelan doan gauza. Jendeak beti kritikatzeko gaitu gu, baina gero —ez etxean bakarrik— beste zelaia batzuetara joan eta ez dira gu baino gehiago, ez dute gu baino hobeto jokatzeko eta batzuetan guk baino gutxiago jaisten dute baloia. Gure aurka gaitzen beti esaten dute gure aurka ezin dela jokatu. Hasieran mindu egiten ninduen horrek, baina orain, berdin dit gutaz zer pentsatzen duten.

MOTZEAN

REALA

Musti Mujikaren aldeko partidaren hartuko dute parte Carlos Xavier eta Oceanok

Carlos Xavier eta Oceano Realeko jokalaririk ohiek elastiko txuri-urdina jantziko dute berriz ere larunbatean Musti Mujikaren alde Anoetan jokatu den partidaren. Era berean, Alex Ubago abeslaria ere egongo da, eta atsedeenaldian Mujikaren aldeko bere bideo bat eskainiko da.

Roman Sodupe ahaldu nagusiak Zubieta XXI proiektuko lanak bisitatuko ditu gaur

Gipuzkoako ahaldu nagusiaren bisita izango da gaur Zubietan. Roman Sodupe Zubieta XXI proiektuko lanak bisitatuko ditu, Jose Luis Astiazaran Realeko presidentek lagunduta.

EIBAR

Etxeko azken bi partidetan ia-ia aurreko denboraldian adina bildu da txarteldegian

Une ona du Eibarren altxortegiak. Zaragozaren aurka txarteldegia 15.565 euro bildu zituen. Horri Osasunaren aurka bildutako 33.000 euroak gehituz ia 50.000 euro jaso ditu Eibarrek etxeko azken bi partidetan, aurreko denboraldian guztira bildu zena ia-ia: 60.000 euro.

ENTRENAMENDUAK

Osasuna. Jokalariek azterketa fisikoa egingo dute gaur Taxoaren hiru txandatan: 9:00, 10:00 eta 11:00etan.

Alaves. 11:00etan Ibaian.

Athletic. Zuri-gorriak Lezaman ariko dira 10:30ean.

Real. Goizean 9:00etan ariko dira Zubieta eta arratsaldean 16:00etan. Bi lan saioak ere ateak irekita izango dira.